


Etorri berriak euskarara nola hurbildu : Markina-Xemeingo esperientzia



*Lehenengo hurbildu, eta gero
murgildu*



Iratxe Lasa Arana
Euskaltzaindia, XIV. Jagon Jardunaldiak

Komunikazio honen helburuak



- Etorri berriekin lan egiten dugunean erabiltzen ditugun hainbat aurreiritzi eta premisa oker apurtzea.
- Markina-Xemeingo esperientziatik abiatuta: txarto eginak eta neurri zuzentzaileak aurkeztea.
- Hausnarketa eragitea.

PREMISA NAGUSIA:
Immigrazioa **ez da arazoa** euskararen normalizazioan, gauzak behar bezala egiten badira, behintzat.



- Gauza jakina da azkeneko urteotan **etorkinen presentzia areagotu** egin dela gure herrietan.
- Gizarteak **aldaketa onartu** egin behar du.
- Gizartearen **esparru askori** eragiten dio aldaketa honek; eragin-esparruetako bat: EUSKARAREN NORMALIZAZIOA.
- Etorkinak ez dira zertan **euskararen normalizazioan arazo edo eragozle** izan behar.
- **Ikuspegi orokorra** ezinbestekoa da: immigrazioarekin zerikusia duten gai guztiek elkarrekiko lotura dute. Horrela bada, etxebizitza, hizkuntza normalizazioa, langabezia, irakaskuntza e.a.



Gizartearen joeratik aldendu egiten dira etorri berriak (ikastereduak eta abar) eta horrek marginazioa ekarriko du.





Marko teorikorako hurbilpena: hastapenetako hausnarketak



- Zabaltzen ditugun mezuak egokiak al dira?
- Motibazioa-ezagutza-erabilera (Txepetx) eskemari jarraiturik, zertan egiten dugu huts?
- Helburu errealak al darabilzkigu?
- Helburu errealak al darabilzkigu?
- Errealitatea objektibotasunez ikusten dugu?
- Zer irudi dute etorri berriek gure hizkuntza egoeraz? Zer dakite?

Zabaltzen ditugun mezuak egokiak al dira?



- Mezuak ezin ditugu orokortu.
- Etorri berriei lehendabizi gure egoeraren gaineko informazioa zabaldu behar diegu.
- Bertako erdaldunen artean zabaltzen ditugun mezuak ez digute balio.
- Hizkuntza normalizazioan ere haiek dute zeresana adierazi behar diegu, eragile bihurtu.
- Bidea erraztu eta bidaide izan.

Motibazioa-ezagutza-erabilera (Txepetx) eskemari jarraiturik, zertan egiten dugu huts?



- Motibaziotik hasi ohi gara: ikus. eskema.
- Ze motibazio mota izan dezake etorkinak: INTEGRAZIOA. (J. Berry)
- Motibazioaren aurretik beste faktore garrantzitsu bat dugu: **JARRERA.**

Hizkuntza jarreretan eragin behar dugu lehenengo: jarrerarik ez dute eta gatazka ekidin behar dugu.

ERDILDUN ELEBAKARRAK



**Euskal Herritar
gazteleradun/frantsesdun
elebakarra**

**Komunikatzeko
beharra.**

**Jatorrizko hizkuntza
ezagutzeko
beharra. "repatriarse"**

**Lan aukera
handiagoa izateko
beharra.**

**Etorkin
gazteleradun/frantsesdun
elebakarra**

**Komunikatzeko
beharra.**

**Jatorrizko hizkuntza
ezagutzeko beharra.**

**Lan aukera
handiagoa izateko
beharra.**

**Komunitate
hartzailea hobeto
ezagutzeko beharra
eta **integratzeko**
beharra.**

Etorkin erdaldun elebakar

**Komunikatzeko beharra:
GAZTELANIA/FRANTSESA**

**Jatorrizko hizkuntza
ezagutzeko beharra.**

**Lan aukera handiagoa
izateko beharra.**

**Komunitate hartzailea
hobeto ezagutzeko
beharra eta **integratzeko**
beharra.**

John Berryren taula:

BERRY, JOHN (1997):
“Aculturation and adaptation” in
BERRY, J.: Handbook of cross-
cultural perspectives, University of
Nebraska Press.



		Berezko identitatea eta ohiturak gordetzen dira	
Beste taldekoekiko harremanak sortu eta mantentzen dira		BAI	EZ
	BAI	Integrazioa	Asimilazioa
	EZ	Bereizketa	Marginazioa

INTEGRATU direnak euren kultura ukatu gabe gehiengoaren kulturarekin jarrera positiboa dutenak.

Motibazioan eragin euskara hurbiltzeko.



Txepetxek: “La motivación eficaz en inducir un aprendizaje es la que crea la **necesidad** personal de aprender el idioma”.

MOTIBAZIOA = BEHARRA SORTU

Helburu errealak al darabilzkigu?



- Etorri berriak euskalduntzea **EZIN DA HELBURU ERREALA IZAN.**
- bertako erdaldunei eskatzen ez dieguna ezin diegu eurei eskatu.
- JARRERA onak sustatu, eragile sentitu daitezzen, bi helbururekin:
 - 1) Jarrera onak > ikasteko motibazioa handitzen du.
 - 2) Etorkizunean izan daitezkeen gatazkak ekidin.

Errealitatea objektibotasunez ikusten dugu?



- Euskal Herrian hizkuntza gatazka egoeran gaude. Etorrinek daukaten komunikatzeko beharrak ez ditu euskara ikastera motibatzen. **Gaztelera/frantsesa nahiko dute komunikatzeko.**
- **Ez al dira berdin integratuko GAZTELANIA/FRANTSESA soilik ikasita?**
- Euskara ikastea ez da eurentzako lehentasunezkoa.

LATIF JATABI, BERBERE BILBOTARRAK (euskara ikaslea):



- “Etorkinak euskara ez du beharrezko ikusten”
- “Hemen, Bilbon, euskara edozein lekutan entzungo balitz, ikastea ezinbestekoa litzateke. Baina ia inon entzuten ez dudanez, askotan iruditzen zait luxua dela ikastea.”
- “Gauza da ez dutela ikusten euskal herritarrek eurek garrantzia ematen diotenik. Hona lan egitera datoz, ez ikastera. Eta ez zaie arrazoirik falta. Arazoa ez da beraiek ikasi nahi duten edo ez, baizik eta ugazabak ez diela eskatzen, edo Administrazioarekin jarduteko ez dutela behar. Katalunian besterik gertatzen da, han bizitzeko ikasi egin behar delako.”
- “Ni neu zoratu nintzen dohainik non ikas zitekeen galdezka. Heldu berriei, behintzat, gaztelaniazko klaseak bakarrik ematen dizkiete. Euskara ikasteko laguntzak urtebete daramazunean ematen dizkizute, ez arinago.”

Zer irudi dute etorri berriek gure hizkuntza egoeraz? Zer dakite?



- Udalerririk euskaldunenetan ere erdaraz egiten diegu, eta ondorioz, guk geuk ere erdarari lehentasuna ematen diogula ikusten dute.
- Euskararen egoeraren berririk ez dute, zenbaitek euskararen beraren berririk ere ez dute.
- Euren hizkuntzenganako (euren herrietan hizkuntza gutxituak baldin badaude) sentsibilizazioa zabaltzen badugu, euskararekiko sentsibilizazioa ere izango dute.




Errealitatera hurbiltzeko eta
etorkizuna aurreikusteko zenbait
datu

Inmigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1991-2005 eta Nafarroan 1996-2003




- 1991-2005 bitartean etorkinen kopurua bikoiztu egin da EAEn eta gora egiten jarraitzen du. (laranjaz)
 - Nafarroan (horiz) 1996an etorkinak biztanleen %0,6 zen eta 2003an %7. Gaur egun %10 inguru.
- **Etorkinen kopuruak gora egin du; eta gora egiten jarraituko du, ekonomia krisia bada ere. Euren herrietako gatazka eta arazoak konpondu ezik, immigrazio fenomenoak aurrera egingo du.**



Etorkinen banaketa EAEn




- Bizkaian kokatzen dira etorkin gehienak.
 - Gipuzkoa eta Araba oso berdinduak daude.
 - Hiriburuetan kontzentrazioarik gehienak.
- **Hiriburuetan zailagoa da integrazioa eta harreman sarea sendotzea, eta ondorioz hizkuntza normalizazioa.**



Etorkinen jatorria




- Etorkinen jatorriak asko baldintzatzen du euskalduntzea eta euskalduntze prozesua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hauexek dira talde nagusienak:
 - Amerikatik (Hego Amerikatik): %45.71
 - Afrikatik (Sahara azpiko Afrika eta Magreb): %18.42
 - Europatik (EB eta EBtik kanpoko herrialdeak): %30.91
- Eskualdearen arabera datuak zeharo aldatzen dira.
- **Etorkinen erdia gazteleraz hitz egiten badaki.**



Markina-Xemeingo adibidea:




- Markina-Xemeinen 1996an etorkinan biztanleen %1,51 zen; 2003an %6,74, 2009 **%13**.
- Markina-Xemeinera datozen etorkinen gehiengoak geratzeko asmoa dauka.
- Etorkinen jatorria (2003ko datuak):
 - Sahara Azpiko Afrika (Senegal): %32
 - EBtik kanpoko Europa (Errumania, Bosnia): %25
 - Magreb: %11
 - Besteak: %32





Markina-Xemeingo herritarren hizkuntza gaitasuna:


- Markina-Xemeinen elebidunen kopuruak gora egiten du urterik urte (0-24 urte bitarteko gazteen %99,33 elebiduna da) eta gazteleradun elebakarren kopuruak jaitsi.
- Beste hizkuntzen gaitasunak gora egin du eta egiten ari da. **Markina-Xemeingo elebidunen ehunekoa jeitsiz.**
- **2009ko datuak hipotetikoak dira: egungo etorkinen kopurua gogoan izan da eta gazteleradun elebakarren jeitsiera konstantea aplikatu eta etorkin gaztelaniadunak gehitu.**



Hizkuntza-gaitasuna (EAS, 2001)




Hizkuntza-gaitasuna (adinaren arabera, EAS, 2001)



Kale erabileraren neurketa

(Soziolinguistika Klusterra, 2006)



Ondorioak:



- Markina-Xemeingo egoera oso bestelakoa, gainerako Euskal Herriko egoerarekin konparatuz gero.
- Markina-xemeindarren %100 elebiduna izan zitekeen urte gutxiren buruan.
- Etorri berrien seme-alaben %100 elebidunak izango dira, D ereduan ikasten dutelako.
- Etorri berriak, ordea, oraindik ere gaztelania ikasten dute eta gaztelania irakasten diete lehendabizi. Etorriak gaztelaniadun elebakarrak izango dira, beraz, urte gutxiren buruan gaztelaniadun elebakarren %100 etorkinak izango dira.
- Bertakoen pertzepzioa katastrofikoa da euskarari dagokionez, euskararengan izan dezakeen ondorioaz arduratuago daude, beste ezer baino.



Huts egiteak eta hausnarketarako zenbait ohar

Etorri berriak euskarara hurbiltzeko mikroplana



*Atzeak erakusten deutsa aurreak
zelan egin behar dauan dantzan*

Lehenengo hurbildu eta gero, murgildu



- 👉 Hasieran helburu nagusia euskaraz jakin zezaten.
 - 👉 **Benetan uste al dugu euskara jakitea derrigorra dela integratzeko? Premia hori sortu behar da lehenengo. Jarrera onak sustatzea da helburu nagusia epe laburrera.**
- 👉 Ekintza solteak eta jarraipenik gabeak.
 - 👉 **Ekintzak sendotu eta borobildu. Esparru berria sortu (transmisioan) > Ezagutza handitu lehenengo, beste ezertan eragin aurretik.** Bertako mezuak zabaltzeko erabiltzen genituen komunikazio bide berberak erabiltzen genituen.
 - 👉 **Komunikazio bide ezberdinak eta hizkuntza ezberdinak.**
- 👉 Inplikaturako eragileak ez dira betikoak.
 - 👉 **Gai honekin eragile berriak inplikatu genituen: Caritas, etorkinen elkarteak, Ongizate Saila...**
- 👉 Etorkinei erantzukizun osoa uzten genien.
 - 👉 **Erantzukizuna herritarrena da batez ere, eta eurei hori jakinarazi behar. Ongi etorria euskaraz kanpaina.**



- Bertoko **egoera soziolinguistikoaz** sentsibilizazio falta.
- **Gure jarrera** etorkinekiko: harremanak gazteleraz egiten ditugu.
- **Eskolaratzea D edo B** ereduetan (hobe D ereduan) izan beharko litzateke eta etorkinen kopurua kontrolatu klase bakoitzean pilaketarik gerta ez dadin. Markina-Xemeinen D eredia baino ez dago.
- Etorkinen bizimodua eta egoera gogoan izan behar dugu, eta **egokitu euskalduntze eskaintza**.
- **Etorkinak=talde homogenea** berdinketa ez da egokia.
- **Euren identitatea errespetatzen** ez bada, zelan eskatu gurea errespetatzea?
- **Baliabide nahikorik ez**, eta “arazo” honekiko jarrerarik ez. Aurrea hartu behingoz.



→ **Lehendabizi gure jarrera aldatu beharra daukagu, eta egunerokotasunean euskararen presentzia areagotuz gero BEHARRA sortuko dugu. Ezin diegu etorkinei, inguruko erdaldunei eskatzen ez dieguna eskatu.**

Baina nola?

1. **Jarrera onak sustatzeko** hizkuntza normalizazioan eragile bihurtu behar ditugu, parte hartzaile. Eurek ere lan honetan behar ditugula jakinarazi behar diegu.
2. Ezagutza handitu nahi badugu **erraztasunak eman** behar dizkiegu.
3. Ekintzak eta mezuak eraginkorrak izateko **eurengana heldu** behar gara. **Euskaraz derrigorra al da?**
4. Euskarara hurbiltzeko ahalegina **GEUK** egin behar dugu, ez eurek.



Esperientzia zehatzak:



Euskara Biziberritzeko Planean esparru berezia sortzea erabaki genuen, transmisioaren atalean, mikroplangintza itxura ematea: epe labur, ertain eta luzerako helburuak ondo finakturik, eragileak eta abar.

- ✓ Euskaraz hitz egiten dutenak saritu.
- ✓ AISA ikastaroa 120 ordotara zabaldu, ondoren euskalduntze lehenengo maila DOAN herritar ororentzako. Euskalduntze sistema aldatu beharra du. Autoikaskuntza eskaintza zabaldu, modu naturalagoan ikas dezaten.
- ✓ Hiztegiak eta oinarrizko materiala euren esku beti. Liburutegiaren laguntzaz euskara ikasteko materialen zabalkundea.
- ✓ Euren hizkuntzak erabili mezuak zabaltzeko, komunikazio bide hurbilak eurentzako.
- ✓ Herritarrak zeharo inplikatu euskarara hurbiltzeko lanetan: “ongi etorria euskaraz” kanpaina. Herritarrei etorri berriekin euskaraz egin dezaten animatzeko kanpaina.
- ✓ Berbalagun bezalako egitasmoak.
- ✓ Eskolekin elkarlana ezinbestekoa.



pitinka-pitinka
apurka-apurka
urratsez urrats
pixkanaka-pixkanaka